

FUTBOLA. Juventussek gogor egurtu zuen Basilea, 4-0 irabazita

Milanen, Manchesterren eta Bartzelonaren aurrerapausoa

Borussia Dortmund, Deportivo eta Newcastle hartu dituzte mendean

Erredakzioa | **DONOSTIA**

Milanek, Manchesterrek eta Bartzelonak oso sendo jarraitzen dute Txapelunen Ligako bigarren ligaxkan, Milango Interrekin batera bi partidak irabazi dituzten taldeak baitira. Milanek 0-1 irabazi zion Borussia Dortmundi, Alemanian, Inzaghi sartutako gol batekin. Atzoko garaipenarekin Italiako taldea C multzoko lidergoan sendotu da. Multzoko beste partidari, Real Madrilak eta Moskuko Lokomotivek bina berdindu zuten. Espainiako taldearen golak Raulek egin zituen, eta Kbiroahak eta Mngunik Errusiako taldearenak.

D multzoan, Manchesterrek eta Juventussek garaipen bikainak lortu zituzten. Ingalaterrako taldeak 2-0 irabazi zion Deportivoi, Ruud Van Nistelrooy aurrelari holandarraren bi golekin. Juventus, aldiz, 4-0 egurtu zuen Suitzako Basilea taldea. Italiako taldearen golak Trezeguetek, Monterok, Tacchinardik eta Del Pierok egin zituzten. Atzoko emaitzekin, Manchester da taldeko liderra, Juventus aurretik.

Bartzelonaren garaipena atzeratutako lehia

Herenegun euriagatik bertan behera geratu zen Bartzelona eta Newcastleren arteko partida ere jokatu zen atzo. Kataluniako taldeak 3-1 irabazi zion Ingalaterrako taldeari. Bartzelonaren golak Danik, Kluivertrek eta Mottak egin zituzten, eta Ameobik Newcastlelarena.



MARTIN RICKETT / EPA
Deportivoko Sergio eta Manchesterreko Veron atzoko lehia.

TXAPELDUNEN LIGA

A MUL.	Pt	J	I	B	G	AIKo
1. Inter Milan	6	2	2	0	0	7 3
2. Bartzelona	6	2	2	0	0	5 2
3. Bayer Lev.	0	2	0	0	2	3 5
4. Newcastle	0	2	0	0	2	2 7

2. JARDUNALDIA

Inter Milan 3-2 Leverkusen
Bartzelona 3-1 Newcastle

C MUL.	Pt	J	I	B	G	AIKo
1. Milan	6	2	2	0	0	2 0
2. B. Dortmund	3	2	1	1	0	2 2
3. Lokomotiv M.	1	2	0	1	1	3 4
4. Real Madril	1	2	0	1	1	2 3

2. JARDUNALDIA

B. Dortmund 0-1 Milan
Real Madril 2-2 Lokomotiv M.

B MUL.	Pt	J	I	B	G	AIKo
1. Arsenal	4	2	1	1	0	3 1
2. Ajax	4	2	1	1	0	3 2
3. Valentzia	2	2	0	1	0	1 1
4. Erroma	0	2	0	0	1	2 5

2. JARDUNALDIA

Ajax 2-1 Erroma
Arsenal 0-0 Valentzia

D MUL.	Pt	J	I	B	G	AIKo
1. Man. United	6	2	1	0	0	5 1
2. Juventus	4	2	1	1	0	6 2
3. Deportivo	1	2	0	1	1	2 4
4. Basilea	0	2	0	0	2	1 7

2. JARDUNALDIA

Juventus 4-0 Basilea
Man. United 2-0 Deportivo

Bi partidatarako futbol zelaia ixteaz gain, 4.000 euroko isuna jarri diote Bartzelonari

Erredakzioa | **DONOSTIA**

Iragan azaroaren 23an jazotako gertakariengatik, Espainiako Futbol Federazioaren Lehiaketa Batzordeak Bartzelonaren Camp Nou estadioa bi partidatarako ixtea erabaki du. Halaber, 4.000 euroko isuna ordaindu beharko du Bartzelonak.

Dena den, ondorioak are larriagoak izan daitezke talde kataluniarrarentzat. Izan ere, Lehiaketa Batzordeak -Indarkeriaren Aurkako batzorde Nazionalaren eskaerari men

eginez- espedientea ireki dio Bartzelona taldeko Presidente Joan Gaspart, partidaren ondoren egindako adierazpenengatik. Aipatu espedientea bere osotasunean garatzen bada, Gaspartek bi urtetik bost urtera doan aldi baterako gaingabetasuna pairatuko luke. Erabakia ezagutu ostean, Bartzelonak helegitea aurkeztuko duela adierazi zuen; era berean, «independentzia falta» egotzi dio Lehiaketa Batzordeari.

Pasa den azaroaren 23an Bartzelonak eta Real Madri-

lek jokatu zuten Cam Nou-en. Hala, urte batzuk atzerago Bartzelonan jokatu zuen eta egun Real Madrilan jokatzen duen Figo jokalaria, kórner bat ateratzera zuzentzen zen bakoitzean, zaleek zelaira gauzak botatzeari ekin zioten. Ezerk ez zuen Figo portugaldarra harrapatu, baina egoera ikusita, Medina Cantalejo epaileak partida 16 minutuz gelditzea erabaki zuen.

Camp Nou estadioa, Espainiako Ligako Lehen Mailan artean itxi gabe zegoen futbol zelai bakarra zen egun arte.

ZIZTU BIZIAN

■ **Xabier Usabiaga**

Eskaletzan txirrindularitzaren alde

Aurreko batean jakin nuenez, Gipuzkoa omen da hurrek kirol gehien egiten duten Espainiako Estatuko probintzia. Hala bota zuen nire solaskideak eta ez nion kontrarik egin, ez datuaren gainean, ez lurraldetasunaren auzian. Gipuzkoako haurren ehuneko 75ek egiten ei du kirolen bat, beste probintzia guztietan baino askoz proportzio handiagoan. Euskal Herriko beste daturik ez dut esku artean, baina ziur beste probintziatako datuak ere aberatsak direla, erakusteko modukoak. Eta gauza bera gertatzen da kirol ekitaldiekin, hemen adina txirrindulari karrera, kross, futbol eta pilota txapelketa, estropada, auto lasterketa, eta abar topatzea ez da erraza izan bide. Ezkutuan gelditzen dena, ekitaldi horien guztien atzean dagoen boluntario lana da. Eta gertuen dudan kirola txirrindularitza denez, kontatuko dut nolakoak diren karrerak antolatzeke zeregin ilunean aritzen diren ibilera esker gutxiakoak.

Dirua izaten da arazoa ia beti, dirua. Udaletxeak emandako dirutza kontatu eta hala ere falta, aurrekontua ezin biribildu, inondik ere. Beraz, beste irtenbiderik ezean, eskera jo behar izaten dute. Herri inguruko enpresetara jo eta... «bai, kaixo... eh... egun on... eh... zera... (lotsaren lotsez, totelka) karrera bat antolatzekeotan gabiltza eta diru laguntza behar dugu, eta nahi izanez gero publizitatea egiteko aukera baduzue halako egunkaritan eta zirkuituan zuen enpresaren izena jartzeko lekua ere baduzue, eta... akaso telebistak ere laburpen bat eskai-



XOUSE SIMAL
Bi ziklo-kroslari lurrean, Igorreko proban.

niko du... eta...». Hizketakidea enpresako idazkaria bada, entzun, eskutitza hartu eta, «hitz egingo dut nagusiarekin eta kaso egingo dizuegu», erantzuten du, eskalearen hitzaspertua aditu ostean.

Enpresa edo komertzio txikiagoetan baina, morroia eta nagusia pertsona bera izaten den horietan, eskalea hizketan ari den bitartean, entzuleari pentsamendua islatzen zaio aurpegian. «Etorri duk orain ere hau, orain asko ez dela motokrosekoa, lehenxeago autokrosekoa, hurrena atletismokoa, beste batean mendira doazen espedizio batekoa... etorri izan diren bezala. Hau duk eskale jarioa, hau. Inporta zaidak niri, telebista eta periodikoko publizitatea torlojuak saltzeko. Bazeukeat honek eskatzen didana non enplegatua bai».

Eta arrazoi du, arrazoi osoa gainera, aspertuta baitago negozioa ireki zuenetik, urtea joan eta urtea etorri, garai bertsuan, diru eskean etortzen den jendeaz. Eta horrela denak ari dira aspertzen, dirua ematen dutenak eta txirrindularitzaren mesedetan eskaletzan dabilzanak. Azken finean, kirol elkar-teak gizartearentzat ari dira lanean, umeek kirola egin dezaten eta helduek gozatu, eta gizartearentzat egiten denak gizartearengandik jaso behar du babesa eta laguntza, gizartearen ordezkarietatik alegia. Beraz, politikariek eurek jakingo dute pizgarri fiskal gehiago sortu behar den edo zergak arindu elkarte ez profesionalak laguntza gehiago izan dezaten, baina egoera aldatzen ez bada, aurki ez dira antolatzen diren ekitaldien erdiak ere antolatuko, eta bestela hasi garai batetik ona zenbat desagertu diren kontatzen.

Besteren alde lanean aritzeko gero eta jende gutxiago dago egun; are eta gutxiago, berriz, eskaletzan aritzeko.